AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2146

371/2014 EBAZPENA, martxoaren 24koa, Bilbao-Basurtu ESIko zuzendari gerentearena, Pilar Uriarte Brizuela andrea izendapen askez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbao-Basurtu ESIko Pertsonaleko zuzendariorde izendatzeko dena.

102/2014 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbao-Basurtu ESIko Pertsonaleko zuzendariordearen lanpostua izendapen aske bidez betetzeko deialdia argitaratu zen.

Batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Pilar Uriarte Brizuela andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendatzea, izendapen aske bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbao-Basurtu ESIko Pertsonaleko zuzendariorde.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko Hirugarren Arau Komuneko 28. artikuluan, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat etorriz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Pilar Uriarte Brizuela andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbao-Basurtu ESIko Pertsonaleko zuzendariorde izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen horrek bi mila eta hamalauko apirilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake, bere eskumen-ahalez, izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko dela, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik betetzen zuen lanpostuak zeuzkan ezaugarri berberekin antolakuntzari eta lurraldetasunari dagokienez. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren biharamunetik aurrera izango ditu ondoriok, eta Osakidetzak berak ezarritako prozedurari jarraituz gauzatuko da. Lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Ebazpen hau interesdunari eta Barrualde-Galdakao ESIri jakinaraztea.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen honi dagokion iragarkia EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2014ko martxoaren 24a.

Bilbo-Basurtu ESIko zuzendari gerentea,
MICHOL GONZÁLEZ TORRES.